

AMALAUDUNA.

(ON MANUEL AYESTARAN JAUNA-RI)

¿Nola kanpuak udaberriyan dira loratzen?
Ala da orain gazte bat jantzi ederki lorez,
Saritu dute maisu aundiyak ikasle onez
Non dana duten leku goiyera oso alchatzen.
Ipiñi gaitu adiškide on danok zoratzen,
Au esateko ez gera bada egongo lotsez,
Baizikan gera chalo jorikan egongo pozez
Non ta ez geran chalo bullakin betiko gortzen.
Ayestaran da Donostiyako seme argi au,
Sendagiñ orain datorkiguna jaiyoterrira;
Amaika aldiz libru aundiyai egun eta gau
Eman diezka gogo onakin milla bat jira;
Bada choriyak udaberriyan ainbat poztu nau
Non jarri nauen zalantza aundiz berari beira.

JUAN IGNAZIO URANGA.